

Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2019ko urriaren 7tik 11rako astea

➤ INGURU MAKROA:


- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

➤ ASTE HONETAN MERKATUETAN

➤ GURE IKUSPEGIA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROGUNEA: ALEMANIAKO INDUSTRIA EKOIZPENA



Datuaren analisisia

Abuztuan, **Alemania**ko industria-ekoizpena % 0,3 hazi zen aurreko hiletik, % 0,4 jaitsi zenean, eta merkatuak aho batez aurreikusitakoa gainditu zuen, hilean % 0,1 atzera egitea espero baitzuten berriro. Nolanahi ere, urteko alderaketan, Alemaniako fabriken ekoizpenak % 4ko beherakada izan zuen, uztaillean izandako % 3,9ko urte arteko atzerakada baino hamarren bat okerrago. Ekonomia alemaniarra gerra komertzialaren ondorioak jasaten ari da bere kanpora begirako esposizio-mailagatik.

Adierazlearen azalpena

Industria-ekoizpenaren indizeak (IPI) herrialde bateko industria-sektorearen adierazgarri den enpresa multzo baten ekoizpenean emandako aldaketak neurtzen ditu. Hilero enpresei industria-sektorearen egoerari buruz egiten zaizkien galdetegiaren erantzunetatik lortzen dira datuak. Ekonomia baten ekoizpen-maila nola aldatzen den jakitea oso garrantzitsua da hazkundearen analisisia egiteko.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

ERRESUMA BATUA: BPGd / INDUSTRIA-EKOIZPENA



Datuaren analisia


Abuztuan, **ekonomia** britainiarra ustekabeen uzurtu zen, Brexitaren inguruan piztutako urduritasunak kutsatuta. Bada, barne-produktu gordina % 0,1 jaitsi zen, uztailean % 0,4 igo ondoren. **Industria-ekoizpenak** % 0,6 egin zuen behera abuztuan, analistek espero zuten % 0,1eko igoeratik aldentuz.

Adierazlearen azalpena

Estatistiken Bulego Nazionalak argitaratzen du barne produktu gordina (BPGd). Herrialde baten ekoizpena eta hazkunde ekonomikoa neurtzeko erabiltzen den adierazle ekonomiko bat da. Industria-ekoizpenaren indizeak (IPI) herrialde bateko industria-sektorearen adierazgarri den enpresa multzo baten ekoizpenean emandako aldaketak neurtzen ditu. Ekonomia baten ekoizpen-maila nola aldatzen den jakitea oso garrantzitsua da hazkundearen analisia egiteko.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: KPI



Datuaren analisisia

Kontsumorako prezioen indizeak ez zuen aldaketarik izan irailean, eta, beraz, urte arteko aldaketa % 1,7ekoa izan zen, abuztuko datu bera. Analistek, ordea, % 1,8ra igotzea espero zuten. Inflazio amerikarra egonkor mantendu zen, gasolinaren eta ibilgailu erabilien prezioek behera egin zutelako, eta alokairuaren eta elikagai prestaturen prezioen gorakada berdintzea lortu zutelako.

Adierazlearen azalpena

KPIa hileroko prestatzen du Lan sailak. Amerikako etxeek kontsumitzen dituzten oinarritzko zerbitzu eta ondasun multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

TXINA: PMI CAIXIN KONPOSATUA



Datuaren analisisia

Txinako ekonomiaren jardueraren inguruko aurreikuspenek hobera egin zuten irailean, eta joan den apiriletik lortzen ez zuen mailaraino igotzea lortu zuen, Caixin aholkularitza-enpresak egindako Erosketen Kudeatzaileen Indizeak (PMI) adierazitakoaren arabera. Abuztuko 51,6 puntuetatik 51,9ra igo zen, hain zuzen ere. Hobekuntza horren erantzulea manufakturen sektorearen susperraldia izan zen, bere PMI indizearen osagaia abuztuko 50,4 puntuetatik 51,4ra igo baitzuen, datuaren irakurketatik onena 2018ko otsailetik. Zerbitzuen sektoreko osagaia, bestalde, 51,3 puntuetaraino jaitsi zen aurreko hileko 52,1 puntuetatik, azken zazpi hiletako minimoetara, alegia.

Adierazlearen azalpena

PMI Manufaktura/Zerbitzuak indizeak hilero erosketen profesionalei eta enpresetako exekutiboiei manufaktura-sektorearen egoerari buruz egiten zaien inkesta bat du oinarri. Fabrikazioaren/zerbitzuen sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuertzen ari den seinale.

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreik.
10/14	Txina	Balantza komertziala	34.75b \$
10/14	Eurogunea	Hileko SA industria-ekoizpena	% 0.3
10/15	Txina	Urte arteko KPIa	% 2.9
10/15	Japonia	Hileko industria-ekoizpena	--
10/15	Frantzia	Urte arteko KPIa	% 0.9
10/15	Alemania	ZEW oraingo egoerari buruzko inkesta	-23.0
10/15	Alemania	ZEW inkestaren aukerak	-26.8
10/15	Eurogunea	ZEW inkestaren aukerak	--
10/15	Estatu Batuak	Manufakturen inkesta New York	1.0
10/16	Erresuma Batua	Urte arteko KPIa	% 1.8
10/16	Eurogunea	Balantza komertziala SA	17.8b
10/16	Eurogunea	YoY azpiko KPIa	% 1.0
10/16	Eurogunea	Urte arteko KPIa	% 0.9
10/16	Estatu Batuak	Hileko txikizkako salmenta aurreratuak	% 0.3
10/16	Estatu Batuak	Liburu Beixa - Erreserba Federala	0
10/17	Italia	Balantza komertziala guztira	--
10/17	Erresuma Batua	YoY txik. salmentak autoen erregairik gabe	% 2.9
10/17	Eurogunea	Hileko eraikuntzaren ekoizpena	--
10/17	Estatu Batuak	Hileko eraikuntza-baimenak	-% 6.0
10/17	Estatu Batuak	Hasierako eraikuntzak	1318k
10/17	Estatu Batuak	Hileko etxebizitza berriak	-% 3.4
10/17	Estatu Batuak	Negozioen egoera Philadelphiako Fed	8.0
10/17	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	215k
10/17	Estatu Batuak	Hileko industria-ekoizpena	-% 0.2
10/18	Japonia	Urte arteko KPIa	% 0.2
10/18	Txina	Urte arteko industria-ekoizpena	% 4.9
10/18	Txina	Urte arteko xehekako salmentak	% 7.8
10/18	Txina	Urte arteko BPGd	% 6.1

BURTSA:

Igoera orokorrak munduko burtsa nagusietan. Beste behin, AEBen eta Txinaren arteko gerra komertzialak eta Brexitak burtsa-indizeetan eragina izan zuten. Aste hasieran, Estatu Batuek Txinako konpainien zerrenda berri bati betoa jarri ziela jakinarazi zuen, gutxiengo islamiarraren giza eskubideak urratzea egotzita. Bada, egoera horrek ezkortasuna piztu zuen negoziazio komertzialak berrabiarazteko aukerei begira. Hala ere, arloko komertzialean Txinak AEBekin akordio partzialak lortzeko agertutako asmo ona eta nekazaritza-produktu estatubatuarren erosketen gorakadak akordio bat egiteko itxaropena piztu zuen. Negozio komertzialen bi eguneko bileraren ondotik, Estatu Batuek eta Txinak akordio partzial bat lortu zuten: Txinak 40.000-50.000 milioi dolarreko balioa duten nekazaritza-produktu amerikarrak erosiko ditu datozen bi urteetan, eta AEBek ez ditu muga-zergak % 25etik % 30era igoko (urriaren 15erako aurreikusita zegoen plana). Gainera, jarrerak batu zituzten jabetza intelektualaren eta finantza-zerbitzuen inguruan. Nolanahi ere, oraindik negoziazioen bigarren fasea egiteke dago, transferentzia teknologikoak eta bermeak ardatz izango dituenak. Brexitari dagokionez, urriaren 31n Brexit ordenatu bat gauzatzeari buruzko Erresuma Batuen eta EBren arteko negoziazioak hausteko zorian egon ziren Johnsonek eta Merkelek izandako elkarrizketatik. Izan ere, Johnsonek proposaturiko akordioa onartezintzat jo baitzuen Merkelek. Bestalde, lehen ministro britainiarrak adierazi zuen ez duela onartuko Brexita eta gero Ipar Irlandak Europako aduanabatasean modu mugagabea jarraitzea. Hala ere, Irlandako lehen ministroak eta Johnsonek egindako bileran, Brexita akordioarekin gauzatzea posible ikusten dutela adierazi zuten, eta, beraz, inbertitzaileei beldur gehien ematen dien egoera uxatzea lortu zuten.

INDIZEAK	PREZIOA	% Aldaketa Astean	Ald. % 2019
MSCI WORLD (Local)	1.675,03	1,05	16,21
IBEX 35	9.273,80	3,48	8,59
DJ EURO STOXX 50	3.569,92	3,57	18,94
DJ STOXX 50	3.229,43	2,71	17,01
FTSE	7.247,08	1,28	7,71
S&P 500	2.970,27	0,62	18,49
Dow Jones	26.816,59	0,91	14,96
NASDAQ	8.057,04	0,93	21,43
NIKKEI 225	21.798,87	1,82	8,91
MSCI GORAKORRAK (Lo	56.652,11	1,34	6,05
MEXBOL	43.214,59	-0,47	3,78
BOVESPA	103.831,90	1,25	18,14
SHANGHAI	3.115,31	2,36	19,30
Errusia Rts Mosku	1.329,63	1,37	24,72

ERRENTA FINKOA:

Arrisku handiagoko posizioetarako joerak gorantz bultzatu zituen zor subiranoaren errentagarritasunak, European zein AEBetan. Hartara, hamar urterako bonu amerikarraren errentagarritasunak 20 op egin zituen gora, % 1,73raino, eta hamar urterako Alemaniako tasa, aldiz, 14 op igo zen, % 0,44raino. Zor espainiarrari dagokionez, hamar urteko bonuari eskatutako errentagarritasunak 10 op egin zituen gora, % 0,24raino, eta arrisku-prima 67 puntutara estutu zen. Kredituaren diferentzialak, bestalde, estutu egin ziren.

Gobernuen tasak	Maila	Aldaketa Astean	Ald 2019
ALEMANIA 2 URTE	-0,72	0,06	-0,11
ESPAINIA 2 URTE	-0,47	0,05	-0,23
AEB 2 URTE	1,59	0,19	-0,90
ALEMANIA 10 URTE	-0,44	0,14	-0,68
ESPAINIA 10 URTE	0,24	0,10	-1,18
AEB 10 URTE	1,73	0,20	-0,96
ALEMANIA 30 URTE	0,10	0,17	-0,78
ESPAINIA 30 URTE	1,14	0,11	-1,48
AEB 30 URTE	2,19	0,18	-0,82
Kreditu-spreada (op)			
MARKIT ITRX EUROPE 12/24	54,31	-3,65	-34,07
MARKIT ITRX EUR XOVER 12/24	241,52	-7,65	-112,16

DIBISAK / LEHENGAIK:

Akordio komertzial bat lortzeko itxaropenak, KPI amerikarraren geldialdiak eta onartutako azken pizgarrien aurrean EBZren barruan piztutako desadostasunak euroaren kotizazioa bultzatu zuten dolarren aurrean. Liberak balio-igoera handia izan zuen, akordiorik gabeko Brexitaren alertak baretu egin zirelako. Lehengaiei begira, petrolioaren prezioa % 2,87 igo zen, akordio komertzial baten inguruan piztutako baikortasunak eraginda, eta LPEEko idazkariak 2019ko abenduan egingo duten bileran murrizketa handiagoak ezarri dezaketela iradoki ondoren. Urrearen balioak % 1,04 egin zuen atzera, 1.489,10 \$/ontza mailaraino.

Dibisak	Maila	% Aldaketa Astean	Ald. % 2019
Dolarra / Euroa	1,10	0,57	-3,71
Yena / Euroa	119,71	1,97	-4,76
Libera / Euroa	0,87	-2,07	-3,01

Lehengaiak	Mail	% Aldaketa Astean	% Ald
Petrolio (Brendt)	60,49	2,87	13,77
Urrea	1.489,10	-1,04	16,11

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.